



ZER ESPERO DUGU?

BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Partaideei prestakuntzatik zer espero duten jasotzea itaunduko zaie, hala nola zer espero duten antolakuntzatik, hezitzaileengandik, beste partaideengandik zein norbere buruarengandik. Astiaren eta jende kopuruaren arabera, metodo ezberdinak erabil daitezke.

AIM OF THE ACTIVITY

● Trebakuntza prozesua gardena izatea ● Partaideek trebakuntzarekiko daukaten erantzukidetasuna nabarmentzea ● Nahiak eta itxaropenak argitzea

EXPECTED OUTCOMES

a) Formakuntzaren edukietatik zer espero den b) Trebakuntza-markotik zer espero den c) Zer espero den partehartzaileengandik d) Norbere buruarengandik zer espero den e) Hezitzaileengandik zer espero den

INFORMATIONS FOR TRAINERS

EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Ariketa hau oso lagungarria da ikastaro baten hasieran, partaide guztiei aukera eman baitzaie euren desirak eta beharrak zein diren adierazteko. Inork informazio engainagarrik jaso badu edota itxaropen irrealak badauzka, aukera ona da antolatzaileentzat hori argitzeko. Era berean, erantzukidetasun giroa sortzeko ere balio du. Trebakuntzan zehar, eta bereziki feedbackei dagokienez, beti itzul daiteke hasierako nahi eta itxaropenetara. Horretaz haratago, itxaropenen inguruan kontsultatzeak arau amankomunak topatu eta erabakitzen lagun dezake.

INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

Apartekorik ez. Jarduera hau kanpoaldean egin daiteke, zorua erabiliz itxaropenak jasotzeko, eta ikusmen urritasuna zein itsutasuna daukaten pertsonekin, aski da espazioak gutxieneko ixiltasun bat izatea guztiek adierazpen oro aditu dezaten.

LENGTH

30 minutuz.

MATERIALS

Paperezko arbela, errotulagailuak eta koloretako orriak (forma ezberdinetakoak, ikusmen arazodunekin).

DESCRIPTION

HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE

Azaldu ariketa kideei. Eskatu bakoitzari koloretako orriak hartzeko (kolore bakoitza gai bati lotuko zaio), beraien nahi edo itxaropenak bertan idazteko - orri bat adierazpen bakoitzeko; 10 minutu hori egiteko. Honakoak dira gaiak: a) zein eduki espero dituzun b) zein ingurune espero duzun c) partaideengandik zer espero duzun d) zer espero duzun zure buruarengandik e) hezitzaileengandik zer espero duzun. Itzuli borobilerara eta eskatu partehartzaileei beraien orriak aurkezteko, eta paperezko arbelean jarri. Multzokatu eta komentatu atera diren nahiak eta ideiak (zein beteko diren, zein bete daitezkeen, zein ezin diren bete). Momentu egokia izan daiteke programazio orokorra aurkezteko.

RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO

10 (ikusmen urritasuna edo ikasteko zailtasunak dauzkaten kideekin, 4 hezitzaileko).

RISK AND POSSIBLE ADAPTATION

VARIATIONS

Ikusmen urritasuna daukaten kideekin, forma ezberdinak erabili galdera bakoitza identifikatzeko. Hezitzaileak erantzunak idatziz jaso beharko ditu.

TIPS FOR TRAINERS

Lor daitezkeen helburuen inguruan zintzoa izan.

PARTICIPANTS

ANALYSIS AND EVALUATION

Partaideek eta hezitzaileek argi al daukate zein diren aukerak eta itxaropenak? a) edukien ingurukoak b) formakuntzaren egiturari buruzkoak c) partehartzaileekikoak d) norberarekikoak e) hezitzaileekikoak

SCHEDULING

Ikastaroaren lehendabiziko egunean.